



Autismoa duten haurrentzako 2.000 piktograma jarriko dituzte Nafarroan leku publikoetan, ingurukoekin hobeki komunikatzeko aukera izan dezaten.

## Denek ulertzeko moduan

**Iker Tubia** Iruñea

**I**rudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela esan ohi da. Batzuentzat, gainera, irudiak eleak dira, komunikatzeko bidea. Autismoa duten hauren kasua da hori. Hitzeko hizkuntza garatzeko zailtasunak dituztenek piktogramak erabil ditzakete ulertzeko eta ulertuak izateko. Hizkuntza unibertsala, alegia. Helburu horrekin, ANA Nafarroako Autismo Elkarteak piktogramak jarriko ditu eremu publikoetan, autismoa dutenek hobeki identifika ditzaten. Guztira, Nafarroako 2.000 tokitan paratuko dituzte.

«Utopia zena gaur errealitatea da». Pozez zorutzen, irribarreari ezin eutsirik aurkeztu du egitasmoa Amaya Ariz ANAko presidentek. Proiektu horren bitartez, autismoa duten haurren komunikazioa erraztu nahi dute. Izan ere, haien agendetan dauden irudiak egingo dituzten jardueretan ikusteko aukera izanen dute.

Zortzi hilabeteko lanaren fruitu dira piktogramak. Lan horretan, Kukuxumusu izan dute bidelagun. Mikel Urmenea eta Mikel Santos *Belatz* marrazkilariek kolorez beteriko piktogramak sortu dituzte. Ezohikoak. Haiek 58 egin dituzte, eta gainontzekoak ARASA-AC Komunikazio Handigarri eta Alternatiboaren Aragoiko Atariak lehenagotik sortuak dira. Zehazki, eraikin publikoak —eskolak, udaletxea, kontserbatorioa...—bigarren horiekin hornituko dituzte.

Gozodendak, okindegiak, autobusak, supermerkatuak, tabernak, gimnasioak... Kukuxumusun koloreek atonduko dituzte. Kasu batzuetan, bertakotuegin dituzte irudiak. Hala, Iruñeko Villavesa, taxiak, Osasuna futbol taldea edota autobusaren geltokiak marraztu dituzte, beste

teak beste. Belatz eta Urmenetaren piktogramak dibertigarriak, koloretsuak eta interpretatzen errazak direla esan du Maite Gabilondok, proiektuko koordinatzaile eta Kukuxumusuko kideak. Aitortu du hasieran beldur zirela ez ote zituzten irudi konplikatuegiak egingen. «Piktograma arruntetatik harago joan gara, eta elementu zein pertsonaia gehiago sartzera ausartu gara».

Arizek aurrera egiteko esan zien, eta emaitzarekin kontent dira; irudi «errealistagoak» lortu dituztela diote. ANA elkarte-ko presidentek esan duenez, alde aurretik barneratuz gero, edozein piktograma ulertzeko eta erabiltzeko gai dira haurrek. Gainera, Kukuxumusuren irudi koloretsuak asko maite dituztela azaldu du.

### Lau haizeetara

Helburua autismoa duten haurrek laguntzea bada ere, bestelako asmo batzuk ere baditu ANA elkarteak. «Nafarroa osoak autismoa eta piktograma bat zer diren jakin dezan balio badu, gaitz erdi», esan du Arizek. Beraz, haurrek lagundu eta, gisa berean, gizartearen kontzientziazioan sakondu egingen dute eremu publikoetan piktogramak jarrita.

Bi helburu horiek lortuta, irudiak mundu osoan zabaltzea gustatuko litzaiekeela azaldu du Gabilondok. Hainbat elkarte jada harremanetan jarriak dira ANArekin, eta egitasmoa hedatuz joanen delakoan daude. Ez soilik Nafarroatik kanpo. Arizek esan duenez, jada badute beste helburu bat: heldu den urterako piktogramak 5.000 tokitan paratzea. Oraingoz Iruñeko Mankomunitatearekin eta Zabalguneako merkatariekin duten harremanari esker, irudi asko jarriko dituzte, zernahi azaltzeko denek ulertzen duten hizkuntzan.



Bi mila tokitan jarriko dituzte autistentzako piktogramak. ANA